

## Demokrazia babestu eta babestu

Espainiako «Asociación Pro Derechos Humanos» ere «Defensa de la Democracia» delako legearen aurka agertu da. Elkar-te honen eritzian, lege horretako agindu batzuk adicrazpen-askatasuna murrizten dute. Golpismoa edo terrorismoa bultzatzeagatik edota berauen apologia egiteagatik komunikabide baten behin-behineko ixtea eta ondoriobidezko sekuestroa da batipat salatzen dutena.

Salakuntzaren oinarri gisa hiru kontsiderazio-modu egiten ditu Elkar-teak.

Lege honen arriskua zera da, Gobernuak berak komunika-bideen sekuestroak egitea, horretarako Epailariaz baliaturik. Jueza, izan ere, tresna hutsa litzateke, aldez aurretik erabaki-endarra kendua bait lioke Gobernuak.

Sententzia eman aurretik eta prozesamendua erabaki orduko komunikabidea ixteak ez du justifikaziorik. Probokazioa edo apologia egon badira egon, gertatuak dira ordurako. Egia esan, le-gearen helburua besterik da: komunikabidea isilaraztea eta eko-nomiazki hondatzea.

Eta azkenik, lege horrek posibilitate hau ere eskaintzen du, hots, delitoaren tresnak, makinak, instalazioak okupatzea. Doku-mentu pribatu baten faltsifikatzailearen boligrafetik sekuestratzen al da? Dudagabeko eite kriminala duten tresnak bakarrik se-kuestratzen dira, adibidez, hilketan erabilitako pistola. Baina se-kula ez berez neutro diren tresnak.

Zergatik eta zertarako, beraz, lege hori?

Elkar-teak hitz gogorrez kalifikatzen ditu lege honen asmoak: «...lo que la nueva ley pretende realmente es el silencio y la ruina de los medios de difusión antes de que se haya producido ningún pronunciamiento definitivo de culpabilidad...».

Gure politikoen ahotik oso bestelako eritziak entzun izan di-tugu. Zeini sinets? Nik haiei. Eta zuk?

Gure politikoenzat «oportuno» ote da Giza-Eskubidencen Al-deko Elkar-tearen salakuntza hau? Seguru ezetz! ■ *Joanes Le-kerika.*

## Don Rodrigoren konplexua

Esaminak ia buru gainean, jo digu ikasten hasteko ordua. Bestetik, ordea, egunotako gorabehera politikoeekin beteta burua, ezin inola kontzentratu.